

Eusko Jaurlaritza
Osasun Saila

Marko Estrategikoa 2021-2024



Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Lan honen bibliogarfia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako
Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
<http://www.euskadi.eus/ejgvbiblioteca>

ARGITALPENA

1.a, 2020ko urria

ALE-KOPURUA

300 ale

©

Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Administrazioa
Osasun Saila

INTERNET

www.euskadi.eus

ZUZENDARITZA, KOORDINAZIOA ETA PRESTAKETA

Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza

INPRIMAKETA

Estudios Durero

LEGE GORDAILUA

BI 01647-2020

AZALA

Azala honen ilustrazioa Manuel Losadaren (Bilbao, 1865-1949)
"Arraunlariak", c. 1912, margolanean inspiratuta dago.
Olioa mihisean, 100,5 x 171,5 cm
Bilboko Arte Ederren Museoa
Inb. zenb. 82/2424

Sarrera

Aurkezpena **9**

Eguneko egoeraren erretratua:
Osasunaren eta bere
baldintzatzailen egoera
Euskadin **12**

Funtsezko 2 arrazoi

1. Osasuna Politika
Guztietan **23**

2. Desberdintasunik gabeko
osasuna, gertuagoa, pertsonen
zerbitzura dagoena **25**

Elementu instrumentalak

1. Euskal Osasun
Sistema **43**

2. Lehen Arreta **55**

3. Osasun Publikoa **57**

4. Arreta
Soziosanitarioa **63**

5. I+G+b **65**

6. Gobernantza **67**

Gotzone Sagardui

Osasun sailburua

Sarritan, “Osasuna” kontzeptua gaixotasunik ezarekin parekatzeko joera dago. Eta, nahiz eta hori izan bere oinarrietako bat, osasuna askoz gehiago da. OMEk honela definitzen du: “Ongizate fisiko, mental eta sozial osoko egoera”. Beraz, “Osasuna” bizi-ohitura osasungarriak hartzea eta gizartean horiek sustatzeko politika publikoak bultzatzea ere bada. Eta hori, arlo guztietan: norbanakoaren bizitzan eta lanean; elikaduran, ariketa fisikoan, aisialdian, kulturean, ingurumenean, etab. **Osasuna politika guztietan presente egon behar da**, eta legealdi berri honetan, printzipio horrek Eusko Jaurlaritzaren osoaren ekintzak, oro har, eta Osasun Sailarenak, bereziki, zuzentzen jarraituko du.

Dokumentu estrategiko hau Covidek dena inbaditu duenean sortu da, pertsonen bizitzako alderdi guztiei eragin dielarik. Ustekabeko zerbait izan da, eta errealitate berri horrek agerian utzi duenez, bizimoduen eta osasunaren arteko harremana, estua izateaz gain, elkarrekikoa da; gure ohiturek, gure portaerek gure osasuna eta gure bizitzaren kalitatea eta itxaropena baldintzatzen dituzte. Orain, nabarmenagoa da pandemia bihurtu den gaixotasun batek erabat baldintzatzen duela gizarte oso baten bizimodua. Inoiz ez da orain bezain nabarmena izan, mundu interkonektatu batean portaera indibidualak hain erabakigarriak direla osasunerako. Eta, egoera horretan, are garrantzi handiagoa du gizarte garatu orok osasun-sistema publiko, unibertsal eta kalitatezkoa izateko duen beharrak, unean uneko asistentzia-eskaerei erantzuteko.

Dokumentu estrategiko hau, beraz, Eusko Jaurlaritzaren osasun-politiken gida gisa planteatzen da, pertsonen premiei ahalik eta erantzunik onena ematen jarraitzeko, bai eta Coviden ondorioz aurre egin behar diegun beste lau erronkari ere, betiere **desberdintasunik gabeko osasuna, hurbilagoa eta pertsonen zerbitzura** dagoena, lortzeko.

Eguno momentuak planteatzen digun **lehen erronka berria** pandemiari aurre egitea da, eskura dauden baliabide pertsonal eta material guztiak eta etorkizun hurbilean irits daitezkeenak ere erabiliz, Covid-ek eragindako egoera gainditzeko eta bizitza soziala eta ekonomikoa normalizatu ahal izateko.

Bigarrena, lortu ditugun esperientziari eta ezagutzari probetxu ateratzea, gure lan- eta kudeaketa-sistemetan txertatzeko eta, horrela, etorkizunean izan ditzakegun gaixotasun berriei berme hobeeekin heltzeko.

Hirugarrenik, gure euskal osasun-sistema hobetzen jarraitzea, profesionalengan, azpiegitura berrietan, ikerketan eta prozesuetan inbertituz erantzuten jarraitu ahal izateko, integrazioa, lankidetzeta eta eraginkortasuna oinarritzko printzipiotzat hartuta, beti ere pertsona eta bere beharrak ekintzaren erdigunean jarritz.


Eta laugarrenik, osasuna sustatzen jarraitzea, zeharkako helburu gisa, ez bakarrik Osasun Sailarentzat eta Osakidetzaarentzat, baita pertsonen ongizatean eta osasunean eragina duten bizitzako esparru guztientzat ere, dela lanekoa, soziala, ekonomikoa edo kulturala.

Horretarako, datozen 4 urteetan, Covidi aurre egiteaz eta haren ondorioak gainditzeko saiatzeaz gain, politika gardenak eta gobernantza ona oinarri hartuta, Euskal Osasun Sistema indartzen jarraituko dugu, inbertsio gehiagorekin eta, lanpostu berriak finkatu ahal izateko, 4.000 lanpostuko lan-eskaintza publiko berri batekin.

Ahalegin berezia egingo dugu Lehen Mailako Arreta dagokion espazio propioaz hornitzeko; gizarte- eta osasun-arloen arteko lankidetzeta areagotuko dugu, horren premia duten pertsonen arreta hobea emateko; biozientzien eta osasunaren arloko berrikuntzari eta ikerketari beste bultzada bat eman nahi diegu, eta, gainera, Osasun Publikoa indartuko dugu. Hala, Euskadik Osasun Publikoaren Lege propioa izatea nahi dugu, azken urteetako eta, batez ere, azken hilabeteetako esperientzian oinarrituta, egungo premiei eta etorkizuneko errealitate berriei erantzuteko prest egongo den legea hain zuzen ere. Guztien adostasuna eta ekarpenak bilduta. Halaber, 2021-2028 aldirako Osasun Plan berri bat egingo dugu, gure ekintza guztiak gidatuko dituen, euskal herritarren osasun-eremak hobetzeko.

2021-2024 aldirako esparru estrategiko honek ekintzarako gida bat izan nahi du, azken batean, desberdintasunik gabeko osasuna, hurbilagoa eta gure politika guztietan presente dagoena, lortzeko, pertsona bakoitzaren zein euskal gizarte osoaren ongizatean eta bizi-kalitatean eragin mesedegarria izan dezan.

Marko Estrategikoa 2021-2024



2021-2024 aldirako esparru estrategikoan 2 funtsezko arrazoi eta 6 elementu instrumental ezartzen dira, azken horien bidez funtsezko arrazoiak garatu eta sendotzeko.



**OSASUN-
EGOERA**

**ARRISKU
FAKTOREAK**

**OSASUNAREN
DETERMINA-
TZAILEAK**

**OSASUN-
SISTEMA**

**Eguneko egoeraren erretratua:
Osasunaren eta bere baldintzatzaileen egoera Euskadin**


Eguneko egoeraren erretratua

OSASUN-EGOERA

Bizi itxaropena	86,4 urte 80,6 urte	Osasun Saila Eustat 2018
Desgaitasunik gabeko bizi itxaropena (DGBI)	72,8 urte 70,5 urte	Euskadiko Osasun Plana ⁽¹⁾
Kolon, ondeste eta uzkiko minbiziaren intzidentzia (tasa/100.000)	37,3 73,0	Euskadiko Osasun Plana ⁽¹⁾
Bularreko minbiziaren intzidentzia (tasa/100.000)	108,1	Euskadiko Osasun Plana ⁽¹⁾
Zerbixeko minbiziaren intzidentzia (tasa/100.000)	6,2	Hilkortasunaren erregistroa 2019
Heriotza goiztiarreko tasa miokardioko infartu akutua dela eta (25-74 urte)(tasa/100.000)	7,9 34,7	Hilkortasunaren erregistroa 2019
GIB bidezko infekzio berrien kopurua	38 152	Euskadiko Osasun Plana ⁽¹⁾
Heriotza goiztiarreko tasa diabetes mellitusarengatik (25-74 urte)(tasa/100.000)	1,8 5,7	Hilkortasunaren erregistroa 2019
Heriotza tasa nork bere burua hiltzeagatik (15-29 urte)(tasa/100.000)	2,0 6,0	Hilkortasunaren erregistroa 2019
Buruko osasun onaren prebalentzia maila sozialaren eta generoaren arabera (MHI-5)	% 4,8 % 2,9	I. TALDEA: % 69,3 V. TALDEA: % 66,1 I. TALDEA: % 76,1 V. TALDEA: % 70,1 Euskadiko Osasun Plana ⁽¹⁾
Bizi kalitatea (EQ-5D-5L)	76,6 79,0	EAEOI

ARRISKU FAKTOREAK


OBESITATEA



AIREAREN KALITATEA



BIZI-OHITURA OSASUNGARRIAK



OSASUNAREN
DETERMINA-
TZAILEAK

Euskadiko
Osasun Plana ⁽¹⁾


Gazteen langabezia tasa
(16-24 urte)

	% 16,0
	% 22,3

Pobrezia arriskua
Errenta pertsonalaren Gini indizea

	0,528
---	-------

Benetako pobrezia egoeran dauden etxeak,
erreferentzia pertsonaren arabera

	% 9,9
	% 4,0

Eskola uzte goiztiarra
(18-24 urte)

	% 5,2
	% 5,6

OSASUN-SISTEMA

OSASUN-SISTEMAREN GASTU ETA FINANTZAKETA

Osasun Saila ⁽⁷⁾

Gastua per capita osasunean Euskadin

1.801 €

OSASUN-SISTEMAREN FUNTZIONAMENDUA

Gripearen aurkako txertoen estaldura 65 urte edo gehiagoko pertsonengan

% 68,0

EAEOI / OBI

Osasun-sistemaren balorazioa Pozik dauden pertsonak

% 91,6

EAEOI

Heriotza-tasa miokardioko infartu akutuaren ondorengo 30 egunetan

% 7,8

% 3,6

Euskadiko Osasun Plana ⁽¹⁾ Bihotzez

Batez besteko atzerapena kirurgia orokorreko itzarote-zerrendetan <= 55 eguneko atzerapenarekin

50,5

Euskadiko Osasun Plana ⁽¹⁾

Aurreko bi urteetan mamografia egin duten 50-69 urteko emakumeak

% 94,1

EAEOI

Ondesteko minbizia goiz detektatzeko programan parte hartu duten 50-69 urteko pertsonak

% 80,0

EAEOI

Biziraupena prostatako minbizia izan eta bost urtera

% 89,9

Erreg. eta Informaz. Zerb. ⁽³⁾

Biziraupena bularreko minbizia izan eta bost urtera

% 84,6

Erreg. eta Informaz. Zerb. ⁽³⁾

Biziraupena koloneko minbizia izan eta bost urtera

% 57,0

Erreg. eta Informaz. Zerb. ⁽³⁾

♀ EMAKUMEAK


♂ GIZONAK

Eguneko egoeraren erretratua

Biziraupena zerbixeko minbizia izan eta bost urtera



10 tratamendu kroniko baino gehiago preskribatuta dituzten 65 urtetik gorako biztanleen ehunekoa



Haurren Hortzak Zaintzeko Programaren (PADI) onuradun izan diren haurren ehunekoa



ERABILERRAZTASUNA ETA ERRESILENTZIA

Medikuak 1.000 biztanleko



Erizainak 1.000 biztanleko



Osasun arloko gastu publikoaren bilakaera



Euskadiko ospitale publikoetako ohe-kopuruaren bilakaera 1.000 biztanleko



Egonaldiaren batez besteko iraupenaren bilakaera (egunak)



Osasun-zerbitzu ez-presentzialak erabiltzen dituzten pertsonak: web bidezko hitzordua



Aurrez aurrekoak ez diren osasun-zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonak: e-mail bidezko kontsulta



Aurretiazko borondateen dokumentua erregistratu duten perstonak 1.000 biztanleko



- (1) Osasun Plana.
2018ko ebaluazio-txostena.
- (2) Eustat - 2016ko Osasun Kontua.
2018/11/28.
- (3) Erregistroen eta Osasun-
Informazioaren Zerbitzua.
Osasun Saila, 2018.
"Minbiziaren biziraupena
Euskal Autonomia Erkidegoan
2000-2012".
- (4) PADI Osakidetzan. 2019.
- (5) Euskadiko Lehen Arretarako
estrategia 2019. 2017ko OSNren
funtsezko adierazleak.
- (6) Arreta espezializatuaren
estatistika 2018.
- (7) Osasun Saila 2018.



Funtsezko 2 arrazoi

**2021-2028 ALDIRAKO
OSASUN PLANA**

2013-2020 Osasun Plana ebaluatzea da plan berria egin eta aurrera eraman aurreko urratsa, osasun-politikak garatzeko funtsezko tresna den aldetik.

**ERAKUNDE
ARTEKO EKINTZA**

Pertsonen osasuna eta ongizatea hobetzeko xedez, botere publiko guztiek egiten duten ekintza indartzeko eta ikusarazteko.

**SEKTORE ARTEKO
EKINTZA OSASUNEAN**

Hau da, sektore ekonomiko eta sozial desberdinen arteko lankidetzaren areagotzea, osasun-ekitatean aurrera egiteko eta osasuna baldintzatzen duten determinatzaileetan aldeko eragina izatea.

1. Osasuna Politika Guztietan

Osasun Plana gobernu orok bere osasun-politikak antolatzeko eta gauzatzeko duen tresna nagusietako bat da, osasuna sustatu, prebenitu, osatu eta berreskuratzeko ekintzak planifikatuz, gauzatuz eta ebaluatuz, gure osasun-sistemaren kalitatea, eraginkortasuna eta efizientzia mantentzeko eta hobetzeko, bai eta publiko eta unibertsala izaten jarrai dezan.

2013-2020 Osasun Planaren indarraldia amaitutakoan, azken ebaluazioa egingo da, eta, egoeraren diagnostikoarekin batera, **2021-2028 aldirako plan berria** diseinatzeko, idazten eta abian jartzen hasteko oinarria izango da.

Osasun Plana behar bezala gauzatzeko ebaluazioa, jarraipena eta kontuak ematea funtsezkoak direnez, 2013an helburu horrekin sortutako egiturek (Osasun Planaren Zuzendaritza Batzordea – Sailen artekoa eta Lehendakaria buru duena– eta Osasuna Politika Guztietan jarraitzeko Batzorde Teknikoa) beren lanari eutsiko diote, eta jarraipena egiteko urteko txostenak egingo dituzte, Planaren lehentasunezko arloetan gertatzen diren eguneratzeak gehituz.

Gaur egun indarrean dagoen Osasun Plana onartu zenetik, Osasuna Politika Guztietan paradigma gure osasun-sistemarako funtsezko oinarri gisa berretsi da; pertsonen osasuna, ongizatea eta bizi-kalitatea giza eskubidetzat hartzen dituenek, botere publikoek eta politika sektorialek partekatzen duten helburua da, ez soilik Osakidetzarentzat, Osasun Sailarentzat edo osasun-arloko erakundeentzat.

Osasuna Politika Guztietan oinarria hainbat jokoeratan gauzatzen da: hala nola, erakunde ezberdinen arteko erantzukizun partekatuan (hau da, Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak, udalak eta Estatuko administrazioa elkarrekin lanean), inplikazioan, baterako konpromisoan eta lankidetzan, pertsonen ongizatea eta osasunean ekitatea hobetzeko.

Konpromiso partekatu hori Euskadiko **Osasun Publikoaren Lege berrian** islatuko da. Era berean, dagoeneko hasita eta finkatuta dauden erakundeen arteko lan-ildoak eutsiko zaie; esaterako, Euskadi Aktiboa plataforma, osasunaren arloko esku-hartze komunitarioak, osasunaren arloko tokiko estrategiak eta programak, osasunaren gaineko eraginaren balorazioa, etab. Gainera, **Gai Epidemiologikoetarako Batzorde Iraunkor bat** sortuko da, Osasun Publikoko jarduerak arlo horretako Europako estrategiekin bat datozela bermatzeko.

Pertsonen eta populazioen osasuna ez dago soilik osasunaren esparruko jardueren mende, baizik eta bizi-baldintzekin eta beste eragile sozial eta ekonomiko batzuekin lotutako faktore-multzo handi baten mende, hainbat sektoretan inplementatutako politikei eta ekintzei lotuta. Faktore horiek osasunaren baldintzatzaile sozialak dira. Osasunaren arloko sektore arteko ekintza hainbat esparru eta alderdiren arteko baterako lana da, osasuna hobetzeko eta haren determinatzaileetan eragiteko; hain zuzen ere, osasunak beste sektore batzuekin dituen baterako konpromisoetan eta jardueretan gauzatzen da.

COVID

**GURE OSASUN-SISTEMA
INDARTZEA**

Herritarrek gain dauzkaten osasun publikoko mehatxu berriei aurrea hartzeko eta erantzun egokia emateko, batez ere egoera ahulenean dauden pertsonen kasuan.

Ildo horretan, funtsezkotzat jotzen da sektore arteko ekintzatik osasuna babestu eta sustatzeko ekarpena egitea, baita euskal gizarteak gaur egun dituen erronka handiei aurre egiteko ere, hala nola klima-aldaketari edo krisi ekonomikoari. Aurkeztuko den Osasun Publikoaren Legea funtsezko tresna izango da ikuspegi hori gure osasun-sisteman finkatzeko.

Politika sektorialak osasunaren alde lerrokatzearen adibide gisa: lankidetzaren sanitarioa bultzatuko da Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekiko lankidetzan, aurreko esperientzietan oinarrituta; ingurune eta ingurumen osasungarriagoak zaintzen jarraituko da; eta elikadura osasungarria sustatzeko eta obesitatea prebenitzeko lanean jarraituko da, sektore konprometituekiko lankidetzan.

2. Desberdintasunik gabeko osasuna, gertuagoa, pertsonen zerbitzura dagoena

2020. urtearen hasieran, munduan Covid pandemia azaldu zenean, agerian utzi zuen behar-beharrezkoak direla, munduko osasun-sistema eta gobernu guztietan, alerta-sistemak eta prebentziozko kontingentzia-protokoloak eta sor daitezkeen gaixotasunei eusteko protokoloak izatea. Euskadin, behar horri erantzuteko, Euskadiko Babes Zibileko Planaz gain, trantsizio sanitario, sozial eta ekonomikoko Bizi Berri Plana sortu zen, Eusko Jaurlaritzak bultzatuta, osasun publikoa zainduz normaltasunera pixkanaka itzultzeko.

Errealitate berri horren esparruan, eta agerraldi berrien aurrean euskal osasun-sistemak dituen gaitasunak hobetzeko, funtsezkoa da test diagnostiko berriak sartzea eta kasuak zaintzeko eta kontrolatzeko sarea mantentzea eta indartzea, intzidentzia-tasen bilakaeraren arabera, positibo guztien miaketa bermatuz, ahal dela diagnostikoa egin eta lehen 24 orduetan, eta ondo dimentsionatutako ekipo eraginkorrak izanda. Gainera, erakundeen arteko lankidetzatik, hala behar duten pertsonak isolatzeko osasun- eta ongizate-baldintza egokienak eskainiko dira.

Osasun Sailak, OMEren gomendioei jarraituz, Coviden kutsadurak detektatzeko eta jarraitzeko teknologia berriak ezartzearen alde egingo du; halaber, ikerketa zientifikoko azterlanen ondoriozko txerto edo terapia posibleen kudeaketa egokiaren alde egingo du ere. Era berean, funtsezkoa da pandemia horren ondorioei buruzko hausnarketa egitea, hainbat dimentsio landuz (osasuna, ekonomia, lana, gizarte, ingurumena), etorkizunean sor daitezkeen beste gaixotasun batzuk behar bezala kudeatzeko.

**EKITATEA,
DESBERDINTASUNEI
AURRE EGITEKO
PARADIGMA**

Osasunean gizarte- eta genero-desberdintasunak murrizteko, batez ere bizi dugun osasun- eta ekonomia-krisiaren egoeran.

Pertsona batek beste pertsona bati emandako arreta, gehien behar duenari babes espezifikoa eskainiz:

- Adinekoak
- Haurrak eta nerabeak
- Gizonen eta emakumeen arteko ekitatea
- Desgaitasunen bat duten pertsonak
- LGTBIQ+ pertsonak
- Gutxiengo etniko, kultural eta erlijiosoak
- Gizarte- eta kultura-aniztasuna
- Askatasunaz gabetutako pertsonak
- Migratzaileak
- Zaurgarritasun-egoeran dagoen edozein pertsona.

ADINEKOAK

Egoera onean zahartzea Euskadin lortu dugun lorpen sozial eta multikausal handia da. Euskal osasun-sistemak, zahartze osasungarriaren aldeko nazioarteko diziplina anitzeko estrategien ildotik, egunero lan egingo du, bai bizi-itxaropen hori handitzen laguntzeko, bai desgaitasunik gabeko bizi-urteak gehiago izan daitezen. Helburu hori ez da soilik gure profesional sanitarioen eta soziosanitarioen DNAREN parte, baita esparru estrategiko honen parte ere, adinekoen osasuna prebenitzeko eta sustatzeko ikuspegia baitu, zahartze osasuntsuan oinarriturik. Kontutan hartuta, gainera, osasun-sistema ez dela lorpen horretan eragiten duen eragile bakarra, batez ere zahartzaroa ez delako gaixotasun bat, baizik eta beharrian eta ezaugarri propioak dituen bizi-etapa bat.

Arreta soziosanitarioko eredu integral berri bat, **adinekoen hauskortasunari arreta emateko plan bat** eta adikzioak dituzten edo izateko arriskuan dauden adinekoek zuzendutako beste bat sustatuko dira.

Era berean, osasun-erakundeak Euskadi Lagunkoia programan sartuko dira, eta jarduteko aukera berriak diseinatzeko aliantzak sortzea ahalbidetzen duten foro edo ekimenetan parte hartuko dute.

HAURRAK ETA NERABEAK

Zerikusirik duten gainerako sail eta eragileekin batera, eta gizarte osoarekin batera, Euskadiren etorkizuna finkatzeko eta haur eta nerabe osasuntsuagoak eta seguruagoak lortzeko lan egingo da. Ospitaleratuz gero, haien erosotasuna eta euren familia hobetzea da helburua.

Hezkuntza Sailarekin koordinatuta, diabetesa artatzeko protokolo berriak zabalduko dira eta, aldi berean, **bihotz-biriketako bizkortzeari buruzko ikastaro** berriak diseinatuko dira. Gainera, funtsezkoa da adingabeei gaitasun berriak ematea, haurrak eta nerabeak erabaki osasungarrienak hartzeko gai izan daitezen.

Erakundeen arteko protokolo bat onartuko da, haurren aurkako indarkeria -abusua eta sexu-esplotazioa barne-, garaiz detektatzen eta jorratzen dela ziurtatzeko, eta kasu guztietan biktimaren babesa eta haren kaltearen erreparazioa sustatuko da.

EKITATEA: EMAKUMEEN OSASUNA

Funtsezkoa da Euskadin gizonen eta emakumeen arteko ekitatea bermatzea, osasun-sistema osorako zeharkako elementu gisa. Horretarako, beharrezkoa da identifikatzea zer osasun-esparrutan eta -arazotan txertatu behar den genero-ikuspegia gai horri heltzeko, inplikaturako eragile guztiekiko lankidetzan. Adibidez, gaur egun badakigu emakumeek bizi-itxaropen handiagoa dutela, eta gutxiago eskuratzen dituztela bihotzeko errehabilitazio-programak. Halaber, biriketako minbiziaren ondoriozko heriotza-tasa handitzen ari da, eta gizonena, berriz, murrizten. Gainera, emakumeek prebalentzia handiagoa dute polimedikazioari, inkontinentziari eta depresioari/antsietateari dagokienez. Indarkeria matxistak emakume askoren osasunean izan ditzakeen ondorioak ahaztu gabe.

2021-2028 Osasun Plan berriak genero-ikuspegia duten osasun-politikak ezarriko ditu, sexuaren arabera aldeak dituzten osasun-esparru edo -arazoei heltzeko.

**PREBENTZIO-,
TXERTAKETA- ETA
BAHEKETA-PROGRAMAK**

Gaixotasunei aurre hartzeak eta detekzio goiztiarrak emaitza hobekien ematen dituzte pertsonen osasunean.

Inplikaturako erakunde guztiekin koordinatuta, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzat, baita haien seme-alabentzat ere, arreta integralik onena bilatzen jarraituko da.

ANIZTASUNAREKIKO ARRETA

Euskadiko gizartea aurreratua eta anitza da. Osasun Sailak lortutako eskubide guztiak bermatu nahi ditu, beste erakunde edo gizarte-eragile batzuekiko aliantzari eta lankidetzari esker, jarduteko edozein aukera berri aintzat hartzea ahaztu gabe.

Antolaketaren ikuspegitik, transexualitateari arreta emateko zerbitzu bat ezarriko da lurralde historiko bakoitzean.

Ikuspuntu juridikotik, arau-esparru autonomiko baten bidez, egoitza-egoera irregularrean dauden etorkinei ematen zaien osasun-laguntza publikorako eskubidea finkatuko da, 7/2018 Errege Dekretuaren arabera (Osasun Sistema Nazionalerako sarbide unibertsalari buruzkoa), eta osasun-txartela, Euskadin aseguratuta dauden gainerako pertsonak dutenarekin homologagarria, emango zaie.

Uneoro, hirugarren sektoreko beste erakunde eta elkarte batzuekin batera, eguneratzeko aukera berriak identifikatuko dira, bai kudeaketan, bai prestakuntzan, bai sentsibilizazioan

ESPETXE-OSASUNA

2011. urtean espetxe-osasuna Osakidetzan sartzeari esker, Euskadin askatasunik gabe dauden pertsonen ematen zaien laguntzaren kalitatea hobetu egin da, zalantzarik gabe; gaur egun, gainerako herritarren baldintza berberetan iristen dira osasun-zerbitzuetara. Izan ere, espetxeetako osasun-zerbitzuak lehen arretako osasun-zentroak dira, eta modu koordinatuan eta jarraitutasunean jarduten dute arreta espezializatuarekin eta ospitaleekin.

Espetxe-ingurunearen beraren berezitasunei eta presoan artean nagusi diren patologiei modu egokian aurre egiteko, zentro horietan lan egiten duten profesionalak prestakuntza espezifiko osagarria izan behar dute. Beharrezkoa da, gainera, osasuna sustatzea, osasun mentala zaintzea eta telemedikuntza eta teknologia berriak gehiago garatzea.

PREBENTZIO-, TXERTAKETA- ETA BAHEKETA-PROGRAMAK

Euskadin, bularreko eta ondesteko minbizien baheketa-programak gure inguruko estaldurarik, parte-hartzerik eta emaitzarik handienetakoak dira. Horrela, egungo parte-hartzearen eta detekzio goiztiarraren emaitza onak mantentzeaz eta Coviden albo-efektua konpentsatzeaz gain, **helburua umetoki-lepoko minbiziaren populazio-baheketaren ezarpena %100eraino garatzea da.**

C hepatitis kronikoari dagokionez, baheketa indartuko da pazienteen bilaketa aktiboa egiteko, jarraipenik izan gabe anti-VHC+ duten pertsonengan. Horrez gain, arrisku-faktoreak dituzten pertsonen baheketa oportunistak sustatzen jarraituko da Lehen Arretan. Era berean, C hepatitis kronikoa arrisku handiko kolektiboetan artatzen, diagnostikatzen eta tratatzen jarraituko da, batez ere adikzioak tratatzeko zentroetan.

Adin txikienetatik
jardun ahal izateko,
prebentzioak osasuna
eta etorkizuneko bizi-
kalitatea hobetzen
ditu.

JAIO AURREKO BAHEKETA

Gaur egun, gure zerbitzu-zorroaren barruan dago anomalia kromosomikoen jaio aurreko baheketa-programa, haurdunaldiaren lehen hiruhilekoan test konbinatu bat erabiltzen duena. Fetuaren edo plazentaren analisi genetikoa da erabili ohi den proba diagnostiko baieztatzailea. Horretarako, teknika inbaditzaileak egin behar dira (amniozentesia/biopsia), eta arrisku handiak izan ditzakete.

Anomalia kromosomikoen jaio aurreko baheketa-programan aurrera egiten jarraitzeko, **amaren odolean zirkulatzen duen DNA fetal askearen testa sartuko da**. Test horrek Down-en sindromearen kasuak gehiago detektatzea eta teknika inbaditzaileen arriskuak murriztea ahalbidetzen du, hala nola fetuen galerak eta horien ondoriozko beste arrisku batzuk.

TXERTAKETA

Osasun publikoa Osasun Sailaren lehenetsuneko jarduera-eremuetako bat izan da beti. Ildo horretan, eta Txertaketarako Euskadiko Aholku Batzordearen laguntzarekin, koronabirusa geldiarazteko txerto berriak kudeatzeaz eta gure errealitatera egokitzeaz gain, Sailaren helburua da haurren eta helduen txertaketa-egutegiak ebaluatzea, eguneratzea eta, egoera epidemiologikoak hala eskatzen badu, zabaltzea, bai eta arriskutaldeen txertaketa-programetarako irizpideak ere. Euskal Autonomia Erkidegoko txertaketa-egutegia etengabe eguneratuz eta egokituz, euskal herritar guztien osasunaren babes-indize altuei eutsiko zaie.

HAURREN HORTZAK ZAINTEKO PROGRAMA (PADI)

Aho-hortzetako osasunaren prebentzioari dagokionez, Osasun Sailak, PADIren bidez, 7 eta 15 urte bitarteko haur guztien hortzetako arreta bermatzen jarraituko du, eta haien estaldura %70era igotzeko lan egingo du.

SENDAGAIK BEHAR BEZALA ERABILTzea

Sendagaien eta antibiotikoen erabilera arduratsua lortzeko, beharrezkoa da Osasun Saila arlo horretan garatzen ari den azterketa- eta sentsibilizazio-estrategiarekin jarraitzea, bai eta mikrobioen aurkako erresistentzien zaintzan eragitea ere. Datuak zabalduz eta aztertuz soilik lortuko da medikazioa behar bezala eta nahitaez erabiltzearen inguruko kontzientziazio handiagoa, biztanleriaren osasun-eraketak hobetzeko. Horregatik, sendagaiak zentzuz erabiltzeko estrategien garapena bultzatuko da, hala nola printzipio aktiboaren araberrako preskripzioa eta generikoen preskripzioa. Une honetan, Euskadin, sendagai generikoak kontsumitutako unitateen %50,5 dira, eta %23,6 balio ekonomikoan. Helburua da generikoen kontsumoa Europako batez bestekoaren mailara iristea, %65 ingurukoa unitateetan eta %25 ingurukoa balioetan.

Azkenik, psikofarmakoen gehiegizko erabilerearen inguruan kontzientziazio kanpainak egingo dira.

OSASUN BEHATOKIA

Euskadiko
pertsonek
osasun-egoerari
buruzko
ezagutza- eta
hedapen-gunea.

PERTSONENGAN ERAGIN HANDIENA DUTEN GAIXOTASUNAK ETA BIZITZAREN AMAIERAKO ARRETA

Morbimortalitatea, mendekotasuna
eta sufrimendua murrizteko, eta
patologia kronikoak dituzten
pertsonei ongizatea eta bizi-
kalitatea emateko.

Helburu horiek lortzeko, funtsezkoa da profesionalen inplikazioa, bai agintzen dutenena, bai ematen dutenena. Ildo horretan, guztiz beharrezkoa da farmaziak osasun-eragiletzat hartzea.

GIB-HIESA PROGRAMA

Euskadik Hiesaren eta Sexu-Transmisiozko Infekzioen Planean ezarrita dauden diagnostiko goiztiarreko, prebentzioko eta prestakuntzako jarduerekin jarraituko du; izan ere, plan hori oraindik indarrean mantentzen duen autonomia-erkidego bakarrenetakoa da. Horretarako, GIBaren esposizio aurreko prebentzioari buruzko kontsultak ezarriko dira hiru lurralde historikoetako ITSen kontsultetan. Era berean, estrategia berri bat sustatuko da **GIBaren paziente egonkor jakin batzuentzako etxez etxeko banaketa-programa bat ezartzen hasteko.**

Hainbat aurrerapauso eta barne-izapide egin ondoren, **Euskadiko Osasun Behatokia** legegintzaldi honetan sortuko da, ikerketa-, azterketa- eta komunikazio-organo gisa. Euskal biztanleriaren osasuna ekitatearen eta generoaren ikuspegitik monitorizatzea eta ebaluatzea izango du helburu, osasun-egoerari eta haren baldintzatzaileei buruzko informazioaren eta ebidentziaren eskuragarritasuna eta erabilera hobetuz, osasun-arloko plangintza, erabakiak hartzen eta jarduera hobea egiten laguntzeko; horrela, Euskadiko biztanleriaren osasun-desberdintasunak eta horiek denboran zehar izan duten bilakaera ezagutu, aztertu eta baloratu ahal izango dira.

Tresna honek, Osasun Sailari atxikita, informazioa eta ebidentzia emango dizkie, modu sistematiko eta integralean, osasun-sistemari berari, erakundeei, ikerketako langileei, profesionalei eta, oro har, gizarteari. Bere jardunean aliantzak eta sinergiak ezarri eta mantendu ahal izango ditu antzeko beste behatoki eta entitate batzuekin.

Osasun Behatokiak sortutako ezagutzak ikuspegi orokorra, eguneratua, ulergarria eta antolatua emango du, Euskadi osoko edo lurralde zehatz bateko osasun-egoeraren eta haren baldintzatzaileen inguruan. Dokumentazio interesgarriaz osaturiko gordailu eguneratu bat edukitzeaz gain, osasunaren arloko baliabideak eta aktiboak seinalatuko ditu. Era berean, aukera emango du informazio hori praktika klinikoan eta soziosanitarioan erabiltzeko.

BIZI-ITXAROPENA LUZATZEA

Euskadin bizi-itxaropena gero eta handiagoa da; hain zuzen ere, une honetan, bizi-itxaropen handienetakoa bat dugu Europar Batasun osoa aintzat hartuta. Hori dela eta, prebentzioa, babesa eta osasunaren sustapena bilatzen da beti, gure biztanleengan bizi-urte osasungarriak ere lortzeko.

Ildo horretan sakontzen jarraitu behar da, jaiotzako batez besteko bizi-itxaropena luzatzeko 2024ko horizontean, bai emakumeen kasuan, bai gizonen kasuan, ahalik eta osasun-baldintza onenetan.

Bizi-ohitura osasungarriak, osasun-hezkuntza, osasunaren autokudeaketa edo lehen mailako arretaren ahalduntzea dira emaitza onak lortzen laguntzen duten

Euskadiko Onkologia
Plana zabaltzen ari da,
prozesu onkologikoak
dituzten pertsonen
arreta hobetzeko,
biziraupena luzatzeko
eta bizi-kalitatea
hobetzeko.

“Infartu Kodea”
eta “Iktus Kodea”
jarduketa-protokolo
esker, gaixotasun
kardiobaskularren
hilkortasuna murrizten
ari da Euskadin.

elementuetako batzuk; eta aurrez aurre ditugun erronketako bat da, halaber, zahartzeari, mendekotasunari eta kronikotasunari erantzun egokia ematen jarraitzea.

MINBIZIA

Azken urteotan minbiziarekin lotutako hilkortasuna nabarmen murriztu bada ere, oraindik ere hori da hilkortasun-kausa nagusia Euskadin, eta horregatik aurreko legegintzaldian ad hoc plan bat jarri zen abian.

2018-2023 aldirako Euskadiko Plan Onkologikoa minbiziaren aurka jarduteko estrategia espezifikoa eta integrala da, eta minbizia duten gaixoen premietan jartzen du arreta, haien biziraupena eta bizi-kalitatea handitzeko helburuarekin.

Minbizia duten pertsonen eta haien familiei zuzendutako plan bat da, eta haien beharrian fisiko eta emozionaletan oinarritzen da; hau da, osasun zaintzaren humanizazioan jartzen du arreta, eta horrek zerikusia du pazientearen duintasunaren, iritziaren eta autonomiaren errespetuarekin edo pertsonen informazio egiazkoa eta ulergarria izateko duten eskubidearekin. 2018-2023ko Plan Onkologikoan ezarritako ekintza-ildoak garatzen eta ebaluatzen jarraituko da legegintzaldi honetan.

Ildo horretan, Onkologikoa Osakidetzan behin betiko integratu nahian, prozesu hori erraztuko duen zerbitzu-erakunde berri bat, ESI berri bat, sortuko da.

GAIXOTASUN KARDIOBASKULARRAK

Prozesu onkologiko eta neoplasikoekin batera, gaixotasun kardiobaskularrek heriotza-kausa nagusietako bat dira Euskadin, oraindik ere, eta ospitaleratze-tasa handiei lotuta daude. Kasu honetan, helburua da gaixotasun horien eragina ahalik eta gehien murriztea eta pazienteen biziraupena handitzea, bizi-kalitate eta autonomia handienarekin, hori guztia genero-ikuspegiarekin eta desberdintasunei erreparatuta.

Patologia horiei aurre egiteko lan-ildoan, **bihotz-biriketako geldialdia artatzeko estrategia bat** ezarriko da. Era berean, **“Infartu Kodearen”** bidez, miokardioko infartu akutuaren ondoriozko heriotza-tasa murrizten jarraituko da, Bihotzez programan identifikatutako hobekuntza-eremuetara bideratutako esku-hartzeen bidez.

Azkenik, **“Iktus Kodeak”** ezartzen duen protokoloaren arabera, paziente bakoitzak ahalik eta denbora laburrenean bermatuta izango du aukera terapeutiko onena.

Pertsonen ongizate
emozionala,
psikologikoa eta
soziala sustatzeko,
eredu komunitario eta
koordinatua behar da.

GAIXOTASUN ARRAROAK

Gaixotasun arraroei aurre egitea ere lan-ildo garrantzitsua da. Funtsezkoa da gaixotasun arraroak aztertzen eta eritasun horiek dituzten pertsonen laguntzen jarraitzea, Euskadik gaixotasun horiei aurre egiteko duen laguntza-sare espezifikoaren sendotzeko. Hain zuzen ere, arreta-nodoetan oinarritutako sare bat izango da eta, horretarako, laguntza-batzorde klinikoak sustatuko dira.

GAIXOTASUN NEURODEGENERATIBOAK ETA NEUROMUSKULARRAK

Gure gizartearen bizi-itxaropena luzatu izanak, zalantzarik gabe, gaixotasun horien eragin eta prebalentzia handiagoa baldintzatzen du; eta baita horri lotutako arazoena ere. Gaixotasun horietako batzuk ezohikoak badira ere, ez dugu ahaztu behar beste batzuk benetan ohikoak direla gure gizartean, Parkinsona eta Alzheimerra kasu. Eta horiek guztiak dira kronikoak, progresiboak eta sendaezinak. Hala, pertsona horiek pairatzen duten narriadura neurologikoak beren funtzioak pixkanaka galtzea eragiten du, eta, ondorioz, desgaitasun fisikoa edo kognitiboa sortzen da; horrek, noski, familiengan eta gizarte osoan ere du eragina.

Arrazoi horiek direla eta, **Euskadiko Gaixotasun Neurodegeneratibo eta Neuromuskularren Estrategia** bat jarriko da abian, eritasun horiei aurre egiteko eta gaitz horiek pairatzen dituzten pertsonen eta haien senideen beharrei erantzuteko helburu eta ekintza espezifikoak ezarriko dituena, betiere osasun-arretaren eta arreta psikosozialaren kalitatea eta osasun-sistemaren barruko eraginkortasuna hobetzeko helburuarekin.

OSASUN MENTALA

Buru-osasunik gabe osasunik ez dagoela sinetsita, arlo hori zerbitzu-sare garrantzitsua da Euskadin, eta helburu hauek ditu: pertsonen ongizatea zaintzea, gaixotasun eta nahasmendu mentalak prebenitzea, eta horiek jasaten dituzten pertsonen tratamendua eta errehabilitazioa ematea. Legealdi honetan zehar, eta jada ibilitako bidea oinarri hartuta, hainbat ildo landuko dira eta pertsonen ongizate emozionala, psikologikoa eta soziala lortzera eta sustatzera bideratutako jarduerak landuko dira. Horretarako, aurrera egin behar da nahasmendu psikiatrikoetarako laguntzaren eredu komunitarioa hedatzeko eta osorik garatzeko.

Hurrengo urteetan, **2019an aurkeztutako Suizidioa Prebenitzeko Estrategia** ezarriko da eta, hasiera batean, errealitate horren zaintza epidemiologikoan, suizidio-arriskuaren kodearen ezarpenean eta osterantzeko jardueretan eragingo du. Era berean, erakunde arteko estrategia bati ekingo zaio gaixotasun mentalari lotutako estigma saihesteko.

Sortzen ari diren profil berriei zuzendutako neurrietan sakontzen jarraitzeaz gain, arreta bereziz aurre egiten jarraituko zaie haur eta nerabeek pairatzen dituzten osasun mentaleko nahasmenduei, bai eta haurren onkologiaren esparruan adingabeek dituzten beharrezko espezifikoak ere. Eta, jakina, osasun mentaleko sareak arreta berezia jarriko die pandemiaren ondorioei, pertsonen osasunerako hain garrantzitsua den dimentsio honetan.

Funtsezko 2 arrazoi

Integrazio sanitario eta soziosanitarioaren eredia sendotzen laguntzeko, **osasun mentaleko asistentzia-ereduei buruzko hausnarketa-prozesu bat hasiko da**, Euskadiko buru-osasunaren sarea eredu horretara egokitze modurik onena jorratzeko.

Helburua pertsonen ahalik eta arretarik onena ematea dela kontutan hartuta, prozesu horretan aztertu beharreko gaietako bat honako hau da: arreta psikiatrikoa testuinguru komunitario eta integratu batean ardazteko modua, eta, gainera, nola egin kudeaketa partekatua ESietan, osasun mentaleko sareetan eta sistema soziosanitarioan integratutako laguntza-programen eta -gailuen artean.

ARRETA BIZITZAREN AMAIERAN: HERIOTZA ONA IZATEKO ESKUBIDEA

Gobernu honek Euskadin bizi diren pertsonekin hartutako konpromisoa betetze aldera, bizitzaren hasieratik amaierara arte, uztailearen 8ko 11/2016 Legea benetan aplikatzen dela bermatzen jarraituko du, eta horretarako behar diren programa guztietan aurrera egingo du, berrikuntzak ekarriz, unerik latzenetan, pertsonen eta haien familiei osasun-arloan, arlo soziosanitarioan eta etxean behar duten erantzuna emateko.

Jarduketa-neurrietako batzuk **2021-2024 Zainketa Aringarrien Plan** berri batean islatuko dira, zerikusirik duten profesional eta erakundeekin batera, aurrekoa (2020an amaituko dena) ebaluatu ondoren.

Baina, gainera, **Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren** esparruan, Osakidetzako profesionalak eta beste sail, aldundi eta udaletako profesionalak elkarrekin aritzeko erraztasunak ematen dituzten neurri guztiak lantzen jarraituko da.

Eta, une oro, euskal gizartea trebatzen eta sentibilizatzen jarraituko da, pertsona bakoitzak hiltzeko prozesu propioa erabakitzeko duen autonomiaren inguruan. Hori lortzeko funtsezko tresna izango da aurrerantzean ere Aurretiazko Borondateen Deklarazioa; Euskadiko tasa, gaur egun, autonomia erkidegoen buruan dago Nafarroarekin batera.



EUSKAL
OSASUN
SISTEMA

GOBERNANTZA

LEHEN
ARRETA

*Politika
Guztietan.*

OSASUNA

*Desberdintasunik
gabe, gertuagoa
eta pertsonen
zerbitzura*

I+G+B

OSASUN
PUBLIKOA

ARRETA
SOZIO-
SANITARIOA

ARRETA INTEGRATUA ETA ASISTENTZIAREN JARRAITUTASUNA

PROFESIONALAK ETA SAREAN LAN EGITEA

Elementu instrumentalak

**SISTEMA INDARTZEA PUBLIKO,
UNIBERTSAL, EKITATIBO,
AURRERATU, ERABAKITZAILE,
KALITATEZKO ETA BIKAIN GISA**

Horrela, gure osasun-
sistema publikoa
sendotzeko

- European arreta unibertsalaren erreferente gisa, eraginkor eta ekitatezkoa.
- Maila guztietan erakunde sendoak biltzen dituen sistema gisa, puntako zerbitzu, azpiegitura eta teknologiekin.

1. Euskal Osasun Sistema

SISTEMARAKO IRISGARRITASUNA

Irisingarritasuna osasun-sistemaren printzipio gidarietako bat da baina, aldi berean, erronka nagusietako bat izaten jarraitzen du, bereziki egoera horretan, Coviden ondorioengatik. Itxarote-zerrendek eta osasun-arreta jasotzeko atzerapenek bultzada bat behar dute atzerapenak murrizteko, kirurgia onkologikoak 30 egun baino gutxiagoko atzerapena izan dezan, eta gainerako paziente kirurgikoek Osakidetzan 6 hilabete baino gehiago itxaron ez dezaten; horrek ahalegin handia egitea ekarriko du, Covidaren ondorioak gainditu ondoren.

Osasun-sistemarako irisingarritasuna hobetzen jarraitzeko, funtsezkoa da, halaber, erizainaren figura sustatzea, **erizainen indikazioa bere osotasunean garatuko den eredu baterantz aurrera eginez**, horrela sistema erabakigarriagoa izan dadin.

PERTSONAK ARDATZ DITUEN OSASUN-SISTEMARI EUSTEA, BALIOAN OINARRITUTAKO MEDIKUNTZA (VBHC) EZARRIZ

Osasun-sistemaren arduetako bat da lortzen ari garen osasun-emaizak ebaluatzea eta herritarrei ahalik eta balio handiena ematen dieten neurriak ezartzea. Beharrezkoa da jakitea zer eragin duen osasun-ekintzak pertsonengan, eta haiekin baieztatzea espero zituzten osasun-emaizak lortu direla. Inpaktu hori ezagutzeko, oinarria nazioartean bermatutako estandarrak dira, emaitza horiek zorrotz neurtzeko aukera ematen duen metodologiarekin.

Balioan oinarritutako osasun-sistema batean aurrera egiteak aukera ematen digu asistentzia berriz diseinatzeko, pertsona ardatz duen arreta integratu baterantz. Ebidentzia zientifikotik abiatuta, paziente ahalduntzeko aukera ematen du arreta horrek, erabaki partekatuak hartzerakoan, bere emaitza klinikoetan eta bizi-kalitatean oinarrituta.

Lan-ildo horretan, balioan oinarritutako medikuntzaren emaitzak Osakidetzan txertatzeko informazio-sistemak garatuko dira. Halaber, Plan Onkologikoan definitutako gaixotasunei dagokienez, lehentasuna emango zaio balioan oinarritutako medikuntza ezartzeari.

HUMANIZAZIOA

Pertsoneri erabat zuzendutako erakundeak direnez, Osasun Sailak eta Osakidetza arretaren humanizazioaren kulturen sakontzen jarraituko dute, asistentziaren kalitatea hobetzeko eta paziente eta profesionalen gogobetetzea areagotzeko.

Humanizazio-politika horiek, esaterako, honako lan-ildo hauetan zehazten dira: harremanetarako gaitasun eta trebetasunei buruzko prestakuntza; osasun-espazio atseginoak, seguruagoak eta erosoagoak diseinatzea; adineko pertsonen hauskortasunari arreta emateko plana; edo pediatriako pazienteei zuzendutako jarduerak. Edo neurri zehatzetan, hala nola, ospitaleko farmaziatik medikamentuak etxera bidaltzea.

Elementu instrumentalak

Bilakaera
teknologikoari esker,
Osakidetzan eta
Osasun Sailean tresna
berriak erabiltzen ari
gara, pertsonentzako
berehalako arreta
eskuragarriago baten
zerbitzura.

Legegintzaldi honetarako konpromiso gisa, Osakidetza humanizatzeko estrategia bat egitea eta abian jartzea planteatzen da, egiten ari diren jarduera guztiak eta etorkizunean behar daitezkeenak sistematizatu eta aintzat hartuko dituen.

PAZIENTEEN AHALDUNTZEA

Gurea bezalako gizarte aurreratu eta demokratiko batean, pertsonak inportanteak dira, pertsona bakoitza aintzakotzat hartzen da. Gainera, paziente informatuenek eta arduratsuenek osasun-emaiza hobeak dituzte.

Hala, Osasun Eskola programa erabat garatuko da, pazienteei prestakuntza emateko eta erabakirik onenak hartzen laguntzeko, horrela beren gaixotasunari aurrea hartu eta haren jarraipena egiteko gai izan daitezen.

OSASUN-KARPETA BERRIA

Osakidetzaren Osasun Karpeta bidez, Euskadiko biztanleei beren osasun-informazioa (Historia Klinikoa) modu seguruan eskuratzeko aukera ematen zaie, Internetarako sarbidea duen gailu baten bidez, munduko edozein lekutatik, urteko 365 egunetan 24 orduz. Kasu batzuetan, posible da osasun-arloko profesionalekin aritzea, modu presentzian ez bada ere, horrela pazienteak ahaldunduz.

Arkitektura informatiko berri bat ezartzearekin batera, **Osasun Karpeta berria zabalduko da**. Karpeta horretan, bilakaera teknologikoa aprobetxatuz, tresna berriak sartuko dira; hala nola, bularreko, koloneko eta zerbixeko minbiziaren baheketa-programen jakinarazpenen kudeaketa; txosten berriak eskuratu eta bistaratzeko aukera berriak, edo aurretiazko borondateen erregistroan sartzeko aukera. Eraldaketa digitaleko prozesu horren helburua da pazientearengan zentratutako eredu tarantz aurrera egitea, pazienteak bere osasunaren kudeaketan askoz rol aktiboagoa har dezan. **Osakidetzaren Osasun Karpeta berriarekin erabiltzaile desberdinen kopurua eta urteko sarbideen kopurua bikoizteko ahalegina egingo da.**

E-OSASUNA

Arretaren eskuragarritasuna eta osasuna hobetzeko teknologia berrien garapena errealitate bihurtu da dagoeneko. Izan ere, e-osasuneko gaitasun digital berriak Osakidetzan ezartzen dira, ESIEk, pazienteek eta ikertzaileek egunero erabil ditzaten, osasunerako kalitate handiko arreta segurua bermatzeko. Helburu hori lortzeko, arreta klinikoko prestazioak beharko dira, gaitasun aurreratuak aplikatuz, hala nola ebidentzian oinarritutako ikaskuntza automatikoa, erabaki klinikoei laguntzea eta alerta adimendunak.

E-osasunean aurrera egiteko, Osakidetzak ere ahalegina egingo du doitasunezko medikuntzaren bidez arreta pertsonalizatzeko eta, horrela, gaixotasunen diagnostikoan eta pazienteentzako tratamendu-fokalizazioan laguntzeko, datuak denbora errealean erabiliz. Ebidentzian oinarritutako terapia digitalen erabilera ere pixkanaka ezarriko da Osakidetzan, telefono adimendunen, tableten eta bestelako gailu pertsonalen bidezko tratamendu-aukera gisa.

**ZENTROAK, EGITURAK
ETA EKIPAMENDUAK
EROSTEA, HOBETZEA,
MODERNIZATZEA ETA
EGOKITZEA**

Arreta hurbilean,
kalitatekoan
eta irisgarrian
aurrera egiten
jarraitzeko.

DOITASUNEZKO MEDIKUNTZA PERTSONALIZATUA

Doitasunezko medikuntza pertsonalizatuak aukera ematen du esku-hartze medikoa pertsona bakoitzaren ezaugarri indibidualetara egokitzeko eta, ondorioz, esku-hartze prebentiboak, diagnostikoak edo terapeutikoak aplikatzeko haien onura lortuko duten paziente-taldeetan. Doitasunezko medikuntza pertsonalizatu honek ez dakar, nahitaez, pertsona bakoitzaren maneiu bakarra, baizik eta pazienteak azpipopulazio desberdinetan sailkatzeko gaitasuna; horrelako taldeen ezaugarrien ondorioz, adibidez, gaixotasun jakin batzuk garatzeko suszeptibilitate desberdina dute, edo tratamendu berari modu desberdinean erantzun diezaiokete.

Medikuntza pertsonalizatuaren edo doitasunezko medikuntzaren garapenarekin batera, aipatutako paziente-taldeen hautaketa egiteaz gain, paradigma-aldaketa bat egiten da ikerketan, hautatutako populazioentzako azterlanen diseinuarekin, zeinetan xede terapeutiko espezifikoaren arabera diseinatutako esku-hartzeak ebaluatuko baitira.

Lan-ildo horretan aurrera egiteko, azken belaunaldiko sekuentziazio masiboko teknologia sartuko da diagnostiko-sarean, eraginkortasun-irizpideekin.

PAZIENTEAREN SEGURTASUNA

Pazienteen segurtasuna funtsezko alderdia da Osakidetza modernizatzeko prozesuan, bai eta osasun-sistemaren iraunkortasunaren oinarritzko zutabea ere. Osasun-laguntzan zero arriskua ez dagoelako ziurtasunak pizgarri bat izan behar du, ez baitago irtenbide erraz eta bakar bat, modu isolatuan implementatuta, pazientearen segurtasuna hobetuko duena. Horregatik, helburu nagusiak dira, batetik, Pazientearen Segurtasunerako 2017-2020 Estrategiaren emaitzak ebaluatzea, gardentasuna mantendu eta kontuak emateko gobernantza onaren konpromisoekin bat etorritz; eta, bestetik, ezarritako ekintza-ildoan eta proiektuen jarraitutasuna bermatzea, azken urteotan Osakidetza eskuratutako ezagutza eta ikaskuntza barne hartuko dituen **2021-2030 estrategia berri baten bidez**. Halaber, funtsezkoa da etorkizunean garatu beharreko erronka eta lan-ildo berriak identifikatzea, osasun-laguntza gero eta seguruagoa izan dadin.

Asistentziaren kalitateak eta osasun-sistemaren modernizazioak zerikusi handia dute ekipamenduak, teknologia eta instalazioak egokitzearekin eta berritzearekin.

Hala, legealdi honetan osasun-instalazioak, -teknologia eta -ekipoak hobetzeko eta modernizatzeko plan espezifiko bat landuko da. Planean, besteak beste, honako neurri hauek jasoko dira: lehen arretako zentroak eta ospitaleak berritzea; X izpien ekipamenduak eta anestesia-ekipoak pixkanaka berritzea; bloke kirurgikoak, endoskopia- eta erradioterapia-gelak eta ospitaleetako gainerako ekipo medikoak eta instalazioak modernizatzea eta handitzea.

Euskal osasun-erakundeetarako irisgarritasun unibertsalean aurrera egiten jarraituko dugu; azken batean, pertsona guzti-guztiok gaitasun funtzional desberdinak baititugu eta izango baititugu gure bizitzan zehar. Pixkanaka, lehendik dauden azpiegituretan, eta, hasierako diseinutik, azpiegitura berri guztietan.

Elementu instrumentalak

BIKANTASUNA ARRETA ESPEZIALIZATUAN ETA OSPITALEETAN

Espezializazioan, berrikuntzan eta emaitza klinikoan maila altua mantentzeko, gure inguruko erreferentziazko zerbitzuen ildotik.

Legegintzaldi honetan zehar, obrak hasita dituzten osasun-zentroak amaitu eta irekitzeaz gain, lanak bukatuko dira, eta Arabako Unibertsitate Ospitaleko eraikin nagusi berria (Txagorritxu) martxan jarriko da.

Bestalde, Tolosan erabakimen azkarreko zentro bat eraikitzeak aukera emango du izaera anbulatorioko espezialitate mediko eta kirurgiko guztiak barne hartzeko eta, gainera, izango ditu kirurgia handi anbulatorioa garatzeko ebakuntza-gelak eta ekipoak, eguneko ospitale mediko-kirurgikoa eta diagnostiko aurreratuak egiteko bitartekoak (endoskopia, erresonantzia magnetikoa, OTA, erradiologia konbentzionala).

EMERGENTZIAK

Osakidetzaren parte izanik, Emergentziak larrialdiak eta larrialdietako osasun-laguntza koordinatzeaz arduratzen da Euskadi osoan. Bere helburuen artean azpimarra daitezke, besteak beste, asistentziaren kalitatea egunetik egunera hobetzea eta herritar guztiei zerbitzu eraginkorra ematea. Hori dela eta, langileen kudeaketa-eredua eta profesionalen arteko barne-komunikazioa eguneratuko ditu eta baliabide materialak eta tresna teknologikoak berritzen jarraituko du. Horrez gain, euskal gizarteari larrialdietako zerbitzu hobea eskaintzeko beharrezkoak dituen antolaketa- eta prozedura-gai guztiak berrikusiko ditu.

TRANSFUSIO ETA GIZA EHUNEN EUSKAL ZENTROA

Osakidetzaren Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroak, berritzen eta ikertzen jarraitzeaz gain, beharrezko neurri guztiak hartuko ditu Euskadin odolaren eta ehunen hornidura eta erabilera egokia bermatzen jarraitzeko. Horrela, Covid pandemian galdutako edo aldatutako hornidura-bilketak berreskuratuz dohaintza-kopurua handitzea aurreikusten du, eta teknologia modernoak erabiliko ditu, segurtasunetik eta, bereziki, azaleratzen ari diren gaixotasun infekziosoekin lotutakotik, odola eta ehunak atera, prozesatu eta biltegitratzeko.

OSATEK

Osatek enpresa publikoaren helburuetako bat da Euskadin erresonantzia magnetikoa egin behar duten pertsona guztien itxaronaldiak 30 egunera arte murriztea. Horrela, urrats berriak emango dira Osatekek plantilla egituratu eta egonkorra izan dezan, behar besteko ekipamendua izan dezan kopuruari dagokionez eta teknologikoki aurreratua izan dadin, eta sistema informatikoak Osakidetzarekin erabat integra daitezen. Horrela, pertsonen ematen zaien asistentzia hobetuko da, baita langileen lan-baldintzak ere.

Osasuna, euskal gizartearentzat, gehien estimatzen duen balioetako bat da eta, aldi berean, haren osasun-sistema, bere zerbitzu publiko baloratuenetako bat da.

Guztiok laguntza eman behar dugu gure sistema sendotu eta hobetzeko. Horretarako, profesionalekin batera, ikertzen eta ebaluatzen jarraituko da, talde profesionalen esperientzia eta ezagutzak optimizatzeak aukera ematen duten ekimen guztiak bultzatzeko.

**FARMAZIA-KUDEAKETA
BERRITZAILEA, JASANGARRIA
ETA OSASUN-BEHARRETARA
EGOKITUA**

Sendagaien arloan,
efizientzian, kalitatean,
irisgarritasunean eta
erabilera egokian
aurrera egiten jarraitzea.

Hala, itxaron-zerrenda kirurgikoak 65/2006 Dekretuan ezarritako ratioen azpitik berreskuratzeke eta finkatzeko lan egingo da. Ratio horiek, gaur egun, estatuko eta Europako mailarik baxuenetan daude: kirurgia onkologikoa 30 egun naturaletan; bihotz-kirurgia 90 egun naturaletan.

Gainera, **Erreferentziako Unitateetan espezializazio handiko politikari** eutsiko zaio, osasunean emaitza hobekitzeko, baldin eta harreman frogatua badago tratatutako kasuen kopuruaren eta lortutako emaitzen artean.

Adituen protagonismo horren ildotik, Osasun Sistema Nazionaleko (CSUR) Erreferentzia Zentro, Zerbitzu eta Unitateetan parte hartzeko edo Europako Bikaintasun Sareetako kide izateko aukerak dituzten lerroak identifikatu eta sustatuko dira.

Osasun-sistemaren iraunkortasuna bermatzeko eta arrazoizko prezioan sendagai berritzaileak eskura daitezkeela ziurtatzeko, beharrezkoa da industria farmazeutikoarekin elkarlan eta etengabeko elkarrizketa izatea; horrela lortuko baita harreman-eredu bat ezartzea, Euskadin posible egiteko osasun-emaitzetan eta medikuntza pertsonalizatuago eta zehatzago baten kudeaketan oinarritutako egoerak garatzea. Helburu horrekin, kudeaketa egokian sakondu behar da, preskripzio eraginkor eta kalitatekoaren etengabeko hobekuntzan berrituz.

Horretarako, eginkizun berriak behar dira farmazia-produktuei buruzko legeriaren arloan, eskumen hori duela gutxi transferitu baitzaio Euskadiri. Aldi berean, osorik garatuko da 29/2019 Dekretua, otsailaren 26koa, adineko pertsonentzako egoitzetako farmazia-zerbitzuei eta sendagai-biltegiei buruzkoa; horrela, kalitateko farmazia-arreta emango zaie egoiliarrei, eta gure osasun-sisteman **Farmazia Soziosanitarioko Unitate** bat sortuko da, sendagaiak egoitzetara modu zentralizatuan hornitzeko, dosi pertsonalizatuen sistema baten bidez.

Era berean, farmazia-bulegoek euskal osasun-sisteman duten integrazio-maila sendotu eta handituko da, komunitatera bideratutako zerbitzuak emanez, sendagaien erabilerari, prebentzioari eta osasunaren sustapenari dagokienez, eta arreta farmazeutikoko programak garatuz.

Azkenik, unibertsaltasuna bermatzen jarraitzeko, eta Euskadin pertsona orok erreferentziako profesionalak agindutako medikazioa eskuratu ahal izan dezan, pentsiodunentzako eta beste kolektibo batzuentzako koordinaketarako laguntzei buruzko 447/2013 Dekretuaren aplikazioari eutsiko zaio, eta xede horretarako bideratutako zenbatekoak berrikusteko eta, behar izanez gero, eguneratzeko konpromisoa hartzen da.

Elementu instrumentalak

ZERBITZU PUBLIKO INDARTSUA ETA SEKTORE PRIBATUA ELKARREKIN BIZI DIRA GURE OSASUN- SISTEMAN

Efizientzia,
espezializazioa,
ezagutza
eta bultzada
ekonomikoa
ematen dituen
orekan.

PROFESIONALAK SAREAN

Euskadiko osasun-
sistema profesionalen
lanari, konpromisoari
eta kooperazioari
esker eraiki da:
pertsonek zaintzen
dituzten pertsonak
dira, hain zuen. Osasun
Sailak helburutzat
hartzen ditu beraien
gogobetetzea eta
gaikuntza.

Euskal osasun-sisteman, ezaugarri moduan, sektore publikoaren eta pribatuaren arteko oreka egon da beti, eta horri esker erantzun egokia eman zaie euskal gizartearen osasun-eskaerei. Osasun Sailak itunak mantenduko ditu euskal osasun-sistemari ongizatea eta espezializazio handiagoa ematen dioten erakunde edo entitateekin eta, aldi berean, gizartean enpresa-sarea sortzen dutenekin.

ENPLEGUA SENDOTZEA ETA LAN-BALDINTZAK

Plantilla handitzeko, lan-baldintzak hobetzeko eta kontziliazioa bultzatzeko neurriekin.

Osasun Sailaren bokazioa osasuna eta ongizatea sustatzea da, bai eta pazienteak eta euskal osasun-sisteman lan egiten duten pertsona guztiak artatzea eta zaintzea ere.

Kudeaketa-neurriak hartzeari dagokionez, plantilla berritu eta handitu egingo da, eta, horrela, lan-egonkortasuna emango zaio Osakidetzari, 2020-2024 aldian LEPetan 4.000 lanpostu eskaintzeko deialdiaren bidez, Eusko Legebiltzarrean onartutako hautaketa- eta lanbide-sustapeneko eredu berriak aplikatuz.

Profesionalekin batera, lan-baldintzen akordioa berrikusiko da, eta familia eta norberaren bizitza uztartzeko neurri berriak ezarriko dira, bai eta mugikortasun irekiko sistema bat eta osasun-langileen kontziliazio erantzukideko programak ere, ordutegi-malgutasuneko eta telelaneko neurriekin. Gainera, “enpresa osasungarria” kontzeptua landuko da, lan-eremuan osasunaren eta ongizatearen kultura are gehiago bultzatzeko eta pertsonekin giro atsegina izatearen alde egiten jarraitzeko.

PRESTAKUNTZA ETA GAIKUNTZA

Profesionalen gogobetetze handiagoa, pazienteekiko arreta hobea eta erakunde bikainagoak lortzeko funtsezkoak direlako.

Errealitate demografiko, sozial, sanitario eta pandemiko berriek prestakuntza- eta gaikuntza-premia berriak dakartzate.

Lidergo partekatua duen antolaketa-eredu batetik, profesionalen prestakuntza, gaikuntza eta sentsibilizazioa bultzatuko da, osasun-sistema etengabe eguneratzeko eragile aktiboak baitira, haien lanbide-kategoria, laguntza-maila edo zerbitzu-antolaketa edozein dela ere.

Egungo une historikotik eratorrita, medikuen eta erizainen artean prestakuntza-programa espezifikoak sustatuko dira, batez ere sortzen ari diren gaixotasunen detekzioari, jarraipenari eta tratamenduari dagokienez.

LANA TALDEAN ETA SAREAN

Osasuna sustatzeak eta zaintzeak sinergiak eta lankidetzak eskatzen ditu, guztion protagonismoarekin eta inplikazioarekin.

Pertsonak zaintzen dituzten pertsonen eraturako osasun-sistema dugu. Konpromiso, gaitasun eta aintzatespen sozial handia duten profesionalek osatua.

Euskal herritarren osasun-premiei erantzuteko hainbat eremutako profesionalen talde-lana eta sare-lana balioetsi, sustatu eta bultzatzen duen osasun-sistema dugu.

**LEHEN ARRETA BULTZATU
ETA INDARTZEA**

Herritarrengandik hurbilen dagoen asistentzia-maila delako, irisgarritasun handiagoa bermatzeko eta osasun-arloko ekitate ezak eta desberdintasunak saihesteko.

Integrazioan eta laguntza-jarraitutasunean oinarritutako eredia bultzatzean, ezinbestekoa da sare eta egitura desberdinetako profesionalen arteko ekarpena, komunikazioa eta koordinazioa, pazienteak izan daitezen beti arreta-zentroan daudenak.

GENERO-IKUSPEGIAREKIN LAN EGITEA

Euskal osasun-sistemaren konpromiso estrategikoa da, bai asistentzia-mailan, bai antolaketa-mailan.

Euskadin gizonen eta emakumeen arteko ekitatea bultzatzea, helburu asistentziala izateaz gain, antolaketa-kulturaren parte ere izan behar du. Euskal osasun-sisteman gizonen eta emakumeen arteko ekitatea bermatzeak hausnarketa eta konpromiso estrategikoa eskatzen du eta, aldi berean, konpromiso hori, esplizituki, Osakidetzaren **emakumeen eta gizonen berdintasunerako I. Plana 2020-2023** dokumentuan oinarritzen da. Hala, eta inplikaturako eragile guztiekin lankidetzan, plan honek identifikatzen ditu lanbide-esparruak eta -arazoak, bertan genero-ikuspegia txertatzeko.

XII. legegintzaldian neurri zehatzak ezarri eta abian jarriko dira soldata-arrakala murrizteko edo zuzendaritza- eta erabaki-postuetan dauden emakumeen kopurua handitzeko, horrela buruzagitzen ehunekoa plantillako emakumeen guztizko ehunekoarekin parekatuz.

2. Lehen Arreta

Ezinbestekoa da lehen mailako arreta indartzen jarraitzea, herritarrengandik hurbilen dagoen laguntza-maila den aldetik, irisgarritasun handiagoa bermatuz eta osasun-arloko ekitate ezak eta desberdintasunak saihestuz. Horretarako, laguntza-maila horrek bere espazio propioa izango du, eta horren isla izango da Lehen Arretako Zuzendariordetza berri baten sorrera, Osakidetzako Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzan. Egituraren aldaketa horrekin, integrazio asistentzial handiagoa lortuko da, lehen mailako arretaren esparrua indartzeko aldaketa-palanka gisa.

Era berean, zabaldu eta homogeneizatu egingo da lehen arretako medikuek eska ditzaketen proba diagnostikoen zorroa, pazienteek ospitalera joan beharrik izan ez dezaten eta lehen arretako kontsulta erabakigarriagoa izan dadin. Adibidez, erresonantziei edo analisi konplexuei dagokienez.

Gainera, lehen arretako fisioterapia Osakidetzaren zerbitzu-zorroan sartuko da pixkanaka. Horrela, patologia osteomuskularra duten pertsoneri mesede egingo zaie. Lehen arretako zentroak modernizatzeo inbertsioa ere handituko da, egitura berriak irekiz, zentroak birmoldatuz eta sistema teknologikoak eguneratuz.

Lehen arretako ikerketak bultzada berezia izango du, osasun-sistemako ikerketa-institutu guztien arlo estrategiko gisa, herritarren osasun-premia nagusiak konpontzen laguntzeko.

Elementu instrumentalak

PROFESIONALAK INDARTZEA ETA GAITZEA

Lehen mailako arretan profesionalen kopurua egokitzea eta medikuen eta erizainen prestakuntza sustatzea.

EKIPAMENDU HOBEAK

Zerbitzu hobea emateko, eta lan baldintza hobeetan aritzeko.

OSASUN PUBLIKOAREN LEGEA

Gure osasun publikoaren sistema indartu eta sendotuko du, pertsonen osasuna babestu eta sustatzeko tresna eta mekanismo eraginkorrenak emanaz.

Halaber, beharrezkoa da lehen mailako arreta sendotzea, beste maila batzuekiko integrazio asistentzian aurrera eginez eta, bereziki, eremu soziosanitarioan; garrantzizkoa da ere lehen arretako kontsultak desburokratizatzea, asistentziaren erabakigarritasuna areagotzeko. Lehen mailako arreta indartuko da, langile fakultatiboen eta erizainen plaza berriak gehituz, eta bultzada hori bideratuko da herritarrek beren osasun-egoeraren jarraipenean arreta hobea izan dezaten, bai eta balizko gaixotasun berrien kasuan -hala nola, koronabirusarekin- identifikatu, miatu, jarraitu eta kontrolatzeko lanetan.

Administrazio-arloak ere indartuko dira, profil funtzional berrien eta horien prestakuntzaren alde eginez. Osakidetzak, halaber, Lehen Arretako Farmazialariaren figura bultzatuko du, ezarritako zerbitzu-zorroarekin, profesionalei aholkuak emateko xedez.

Lehen Arretako medikuak eta erizainak indartzeko beste formula bat hau izango da: Pediatriako MIR eta Familia eta Komunitate Medikuntzako MIR eta EIR prestakuntzei lehentasuna ematea. Helburu horrekin, konpromisoa da Euskadin egiaztatutako irakaskuntza-gaitasuna ahalik eta gehien aprobetxatzea, ahalik eta plaza gehien ahalbidetzeko. Horrela, EHUrekiko lankidetzak jarraituko du, Familia Medikuntza ikasketa-programan beste irakasgai bat bezala sar dadin, espezialitate horri prestigioa emanez.

Lehen Arretako egitura berriak irekitzeari ekingo zaio, bai eta hala behar duten osasun-zentroak birmoldatu eta eraberritzeari ere, hautemandako beharren eta ezarritako plangintzaren arabera, Osakidetzaren azpiegiturei buruzko atalean adierazten den bezala.

3. Osasun Publikoa

Osasun Publikoaren helburua da euskal herritarren osasuna babestea eta sustatzea, interes handieneko ondasun publikoa baita, horretarako pertsonen eskubideak bermatuz osasunaren, aukera-berdintasunaren eta ekitatearen arloan; osasunaren baldintzatzaileen gainean jardutea; gaixotasunak, lesioak eta desgaitasuna prebenitzea; eta pertsonen osasuna babestea eta sustatzea, bai eremu indibidualean, bai kolektiboan.

Osasun Sailaren zerbitzuak, dotazioak eta programak azken urteotan osasun publikoak izan duen bilakaera garrantzitsuaren arabera egituratzeko, legegintzaldi honetan Osasun Publikoaren Legea onartuko da, hainbat alderdi indartzeko; hala nola, alerta-sistemak eta erantzun azkarreko sistemak, euskal herritarren osasunerako mehatxu izan daitezkeen arriskuak detektatzeko. Osasun Publikoaren informazio-sistema ere sendotuko da.

Covidek izan dituen ondorio nagusietako bat izan da Osasun Publikoak asistentziaren arloan izan behar duen zereginari buruzko ikuspegia aldatzeko premia nabarmena dagoela. Horrela, Osasun Publikoa ospitale-eremuan ez ezik, Osakidetzako Lehen Arretan ere sartuko da. Ondorioz, landa-epidemiologiako gailuak ESIetan integratuko dira, laguntza-jarraitutasun handiagoa eskaintzen duen osasun-arretan aurrera egiteko.

**OSASUNAREN
SUSTAPENA ETA OSASUN
KOMUNITARIOAREN
GARAPENA**

Pertsona guztiek
beren osasunerako
erabakirik onenak har
ditzaten eta ingurune
eta komunitate
osasungarriak sortzen
laguntzeko.

Osasuna Politika Guztietan paradigmaman oinarrituta, osasunaren prebentzio- eta sustapen-programak bultzatuko dira zeharka euskal politika publiko guztietan. Hala, Euskadiko osasun publikoaren erakunde- eta lurralde-antolamendua artikulatuko du legeak, bai eta osasunaren arloan eskumenak dituzten erakunde eta organismoen arteko koordinazioa eta lankidetzaren ere.

Gainera, osasunaren aurkako mehatxu berriei egokitutako Osasun Publikoko zerbitzuak ezarriko ditu legeak, osasun komunitarioaren ideia garatuz eta teknologiaren eta ikerketaren aldeko apustua eginez, prebentziozko elementu zuzentzaile gisa.

INGURUNE ETA BIZIMODU OSASUNGARRIAK SUSTATZEA

Osasuna sustatzeak berekin dakar gizarte-, ekonomia-, ingurumen- eta lan-baldintzetan eragitea, osasunerako egokiak diren inguruneak sustatzeko. Halaber, ekintza komunitarioa indartu nahi du, komunitateek berek prozesuetan parte har dezaten, horien bidez osasun-premiei hobeto erantzuteko, osasunaren baldintzatzaileak hobeto kontrolatzeko eta, ondorioz, ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzeko.

Lan-arlo honen funtsezko beste alderdi bat bizimodu osasungarriak sustatzea da, pertsonak, bizitzan zehar, beren osasunerako eta komunitatearentzat onuragarriak diren erabakiak har ditzaten.

OSASUN KOMUNITARIOA

Horretarako, sarean lan egiteko prozesuak bultzatu eta garatzen jarraituko da toki- eta komunitate-mailan, erakundeen, tokiko eragileen eta komunitateko kideen artean osasuna hobetzen lagunduko duten aliantzak eta sinergiak sortuz.

Euskadi Aktiboa proiektuan aurrera egingo da, pertsona, erakunde edo kolektibo orok bere ingurunean edo komunitatean dauden osasun-aktiboak identifikatu eta barneratu ahal izan ditzan.

Gainera, Osakidetzako erakunde guztiek esku-hartze komunitarioko plan bat zehaztuko dute, udalerrri guztietan osasuna sustatzeko eta prebenitzeko jardueren hedapena sustatzeko, Osasun Publikoaren sarearekin, udalerriekin eta tokiko osasun-aktiboekin koordinatuta.

“Preskripzio soziala” bezalako tresnak bultzatuko dira; honelakoek Lehen Arretako profesionalei aukera ematen die kontsultara joaten diren pertsonak beren udalerriko edo komunitateko jardueretara bideratzeko, inguruko baliabideak erabil ditzaten.

ELIKADURA OSASUNGARRIA

Elikadura osasungarriak erabatekoa eta orekatua izan behar du, eta bizitzako etapa edo egoera bakoitzera egokitu; horrez gain, elikagai osasuntsu anitzak izan behar ditu. Euskadin fruta eta barazki gehiago jateko, azukre eta gatz gutxiago hartzeko eta gantzen kontsumoa osasun-gomendioetara egokitzeko, elikadura osasungarrirako eta haurren obesitatearen aurkako estrategiak ezartzen jarraituko da.

Garatu beharreko beste neurri batzuen artean, elikadura osasungarriaren sustapenaren gaian osasun-arloko profesionalen sentsibilizazioa eta prestakuntza areagotzeko lan egingo da. “Vending osasungarria” Osakidetzako ospitale guztietara zabalduko da, eta

Elementu instrumentalak

ADIKZIOEI AURRE HARTZEA ETA ARRETA EMATEA

Sentsibilizatzen, prebenitzen eta errealitate berriei aurre egiten jarraitzeko, komunitate-esparruan eta babes-faktoreetan arreta jarritz.

sektoreen arteko lana egingo da Euskadiko vending-makinetan elikagai osasungarri gehiago eskura egon daitezen.

Eskuduntza duten beste erakunde batzuekin batera, azukredun edariak zergapetzeko aukera aztertuko da, azukrearen kontsumoa murrizteko neurri eraginkorra baita.

JARDUERA FISIKOA

Euskadiko helduen %30ek soilik egiten du osasun-egoera ona ziurtatzeko behar adinako jarduera fisikoa. Bizimodu aktiboak duen garrantziaz jabetuta, eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarekin lankidetzan, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren bidez, jarduera fisikoa egitea sustatuko da euskal herritarren artean, Euskadi Europako gizarte aktiboenen artean kokatzeko..

SEXU- ETA UGALKETA-OSASUNA

Funtsezko alderdia da pertsonen osasunerako eta ongizaterako, emakumeek eta gizonek sexualitateari eta ugalketari dagokienez dituzten eskubide eta beharrei erantzuteko. Eusko Jaurlaritzak sexualitatea modu informatuan, osasungarrian, atseginean eta berdinzalean bizitzea sustatzen jarraituko du, eta arreta integrala, jarraitua eta kalitatekoa eskainiko du ugalketa-prozesuan zehar.

Horretarako, sexu-osasunerako informazio- eta hezkuntza-programek martxan jarraituko dute, genero-berdintasunean eta sexu-aniztasunaren errespetuan oinarrituta. Bereziki, nerabeen eta gazteen arteko hezkuntza afektiboa eta sexuala sustatzen jarraituko da, Osasun, Hezkuntza eta Gazteria Sailek batera parte hartuta.

Adikzioak osasun publikoko arazoa diren aldetik, erakundeek modu koordinatuan jorratu dituzte aspalditik, hainbat lan-ildotan; hala nola balio, ohitura eta bizi-estilo osasungarriak sustatzea, prebentzioa, arriskuak murriztea eta adikzioak dituzten pertsonen laguntzea.

Datozen urteei begira, adikzio-arazoak eta premia espezifikokoak dituzten kolektiboak arreta hobea ematea proposatzen da, bai eta arazo berrien aurrean esku-hartzea areagotzea ere (adibidez, substantziarik gabeko adikzioak, substantzia berriak edo sarbide-kanal berriak). Garrantzitsua da, halaber, substantzien arriskuari eta adikzioak eragin ditzaketen jokabideei buruzko gizarte-kontzientzia handiagoa sustatzen jarraitzea, gehien kontsumitzen diren substantzietan dagokienez (alkohola, kalamua, tabakoa eta nikotina-banaketarako gailu berriak), prebentzio komunitarioaren eta ingurumen-prebentzioaren bidez, eta aisialdi seguru eta osasungarria sustatuz. Halaber, beste erakunde eskudun batzuekin lankidetzan, joko patologikoaren prebalentzia murrizteko neurriak garatuko dira.

Azkenik, legegintzaldi honetan hasiko dira adikzioen arloko aintzatespenen deialdiak, toki-erakundeen, hirugarren sektorearen eta asistentzia-eremuaren prebentzioan eta asistentzian egindako lanari balioa emateko.

**ARRETA SOZIOSANITARIOAREN
EGITURA BULTZATZEA ETA
SENDOTZEA**

Gero eta handiagoak diren premia soziosanitarioei erantzuteko eta pertsonen bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko.

GOBERNANTZA

Aldundiekin eta udalekin egindako akordioen bidez, eta gobernantza soziosanitarioari buruzko dekretu berriaren bidez.

**ARRETA INTEGRATUAN
AURRERA EGITEA**

Eta, horrela, arreta soziosanitarioko estrategia integral bat garatzea, abian jarritako jarduerak indartuko dituen eta neurri berriei helduko diena.

4. Arreta soziosanitarioa

Euskadiko arreta soziosanitarioa osasun- eta gizarte-zerbitzuak ematen dituzten erakundeen artean eratu den elkargune eta koordinaziorako gune komuna da, espazio horretan prestazioak jasotzen dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko.

Osasun Sailean Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza berria sortzea, zalantzarik gabe, funtsezkoa izango da jardun-arlo garrantzitsu honetarako.

Egitura indartzeko funtsezko elementu gisa, baliabide soziosanitarioen katalogo bat eta adostutako finantzaketa-eredu bat ezarriko dira, bai eta ebaluazio-prozedura bat ere.

Digitalizazioaren eta aurrez aurrekoak ez diren zaintza-neurrien barruan, telelaguntza-zerbitzua 80 urtetik gorako pertsona guztiei zabalduko zaie, eta bakarrik dauden pertsoneri arreta profesionala emateko lerro espezifiko bat jarriko da martxan.

Datozen urteetan, oso-osorik garatuko dira, Osasun eta Berdintasun Sailak, Justizia Sailak eta Gizarte politiketako Sailak eskatuta, foru-aldundiekiko eta udalekiko lankidetzan, gobernantza soziosanitarioaren ereduari buruzko aurreikuspenak, egitura eta dinamika instituzional, antolamenduzko eta asistentzial guztietan.

Aurrerapen horiek guztiak egituratzeko, gobernantza soziosanitarioari buruzko dekretu bat argitaratuko da, gizarte-politiken eta osasun-politiken arloen artean. Dekretu horretan ezarriko da xede diren kolektibo guztientzat lehen mailako arreta soziosanitarioaren garapena, haren ardatz gisa.

Datozen urteetarako, arreta soziosanitarioko eredu integral berri bat sustatuko da, laguntza sanitarioko eta sozialeko lehen mailako sareak koordinatuz, xede diren kolektibo soziosanitarioei zuzenduta eta, bereziki, adinekoei eta mendekotasunen bat dutenei, beren etxeetan edo egoitzetan bizi izanda ere.

Historia Elektronikoko Soziosanitarioa abian jarritz, zerikusia duten erakunde guztien arteko arreta integratua bultzatuko da, eta pertsona izango da jarduera ororen erdigunean.

Era berean, koordinazio handiagoa eratuko da Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailarekin eta hirugarren sektorearekin, jarduketak eta baliabideak optimizatzeko eta kalitate handiagoko arreta eskaintzeko.

Elementu instrumentalak

OSASUNAREN ARLOKO IKERKETAKO ETA BERRIKUNTZAKO EKOSISTEMA PROPIOA GARATZEN JARRAITZEA

Gure industria-
errealitatearekin
lankidetzan, eta osasun-
sistemak gizarte-
kohesioari eta Barne
Produktu Gordinari
egindako ekarpen gisa.

OSASUN ARLOKO I+G+B SISTEMA KOORDINATUA ETA LANKIDETZAN OINARRITUA

Eta gizonen eta
emakumeen arteko
ekitatean ere
laguntzen duena.

5. I+G+b osasungintzan

Kalitatezko osasun-laguntza ezin da bereizi osasun-arloko ikerketatik eta berrikuntzatik. Horregatik, euskal osasun-sistema eta berau osatzen duten pertsonak I+G+b ekosistemaren funtsezko aktibo bat dira, euskal ikerlariei emaitzen aplikazioa azkartzea ahalbidetzen diena, pertsonen osasunaren mesedetan. Horrek guztiak, gainera, Nazio Batuen Garapen Iraunkorreko Helburuak betetzen laguntzen du. Horrez gain, Euskadik badu Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plan bat, non biozientziak-osasuna binomioa hazkunde-arlo estrategiko bat den.

Euskadik helburu izan behar du osasun-ikerketan eta berrikuntzan Europako polo bat izatea, bai eta osasun-ekipamenduak eta -zerbitzuak ekoizteko erreferente bat ere.

Helburu hori bultzatzen jarraitzeko, **2021-2024 Osasun arloko Ikerketa eta Berrikuntza Estrategia** berri bat eta **osasun-ikerketarako tresna estrategiko berri bat** onartuko dira, elkarren artean lerrokatuta, eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza 2030 Planaren eta RIS3 espezializazio adimenduneko estrategiaren esparruan.

Hori lortzeko funtsezko tresna metodologikoak honako hauek izango dira: osasun-ikerketako sistemaren eta euskal enpresa-ehunaren, ehun zientifiko-teknologikoaren, instituzionalaren eta sozialaren arteko lankidetzak, oro har.

2020ko esperientziak agerian utzi du I+G+btik egindako ekarpenak osasun-sistemaren beharrei ahalik eta erantzun onena emateko duen garrantzia, osasun-material estrategikoaren ekoizpena eta hobekuntza sustatuz.

Osasun-sistemak I+G+b erakunde multzo bat du, 4 ikerketa-institutuk (Bioaraba, Biocruces – Bizkaia, Biodonostia eta Kronikgune) eta buru korporatibo batek (BIOEF) osatua.

Osasuneko I+G+b erakundeen funtzionamendu koordinatua eta sarean aritzen dena errazteko, osasun-arloko ikertzaileen estatutu berri bat bultzatuko da, sistema zientifiko-teknologikoarekin eta enpresa-sistemarekin duten harremana eta lankidetzak errazteko. Era berean, aurrerapenak egingo dira pazienteek ikerketa- eta berrikuntza-prozesuetan parte gehiago har dezaten. Haien ekarpenei eta esperientziei esker, edozein hurbilketa metodologiko hobetuko da.

Gainera, interes berezia jarriko da I+G+bk gizonen eta emakumeen arteko ekitatea lortzen lagun dezan. Alde batetik, berriazko laguntza-programa berri bat jarriko da abian, ekoizpen zientifikoa eta emakumeek osasun-ikerketan duten parte hartzea sustatzeko. Bestetik, emakumeen osasun-arazoak eta patologia espezifikoak hobetzen saiatzen diren ikerketa-proiektuak bultzatuko dira.

Integrazio eta jarraitutasun asistentzialaren ereduak sendotzeko, berrikuntzaren eta ikerketaren ikuspegi integrala indartuko da, osasun-sistemaren beharretara bideratuta.

**EBALUAZIOA ETA
KONTUAK EMATEA**

Ikuspegi guztiak aintzat hartzen dituen osasun-sistema.

**HERRITARREN PARTE-
HARTZEA ETA KOMUNIKAZIOA
OSASUNGINTZAN**

Gure osasun-sistema hobetzeko beharrezko tresna gisa.

PLANGINTZA

Prozesu dinamiko eta espezializatu gisa ulertzen da, Euskadin osasunaren egoera aztertu eta hobetzeko eta behar diren aldaketak egiteko.

**AUTOGOBERNUAREN
DEFENTSA OSASUNGINTZAN**

Kalitatezko osasun-sistema sendo eta preziatu batean aurrera egiten jarraitzeko.

6. Gobernantza

Ahots guztiak -pazienteenak, familienak eta zaintzaileenak, elkarteak, kategoriatuak, profesionalenak, zerbitzu-erakundeetako arduradunenak, kudeatzaileenak, erakundeetako ordezkarienak-, denak dira garrantzitsuak eta arreta jaso behar dute.

2021-2028 Osasun Plan berriaren urteko ebaluazio-eredua finkatuko da eta, ondoren, Legebiltzarrari aurkeztuko zaio, azken batean Euskadin bizi diren pertsona guztiak kontratu sozial bat izan dadin.

Legez ezarritako kontrol-organoez gain, esaterako, Eusko Legebiltzarra, aholku-kontseiluak eta -batzordeak ebaluaziorako eta kontuak emateko kanal garrantzitsuak izaten jarraituko dute. Gainera, sortzen diren horrelako organo berri guztiak parte-hartze zabala izango dute, medikuntza pertsonalizatuari, edoskitzeari eta haur-onkologiari buruzko sortu berrien adibideari jarraituz.

Beren osasun propioaren arduradunak izanda, pazienteek izan behar duten partaidetzari esker, eraginkorrak edozein esku-hartze kliniko. Era berean, herritarrek antolamenduaren, zerbitzuen edo osasun-politiken diseinuan edo hobekuntzan parte hartzen badute, zalantzarik gabe, proposamen orientatuak eta eraginkorrak sortuko dira, eta horrek, gainera, osasun-sistema bera indartzen lagunduko du.

Are gehiago gizarte modernoetan aldaketa sozial eta sanitarioak erritmo bizian gertatzen direnean, herritarrekiko harremana etengabe birpentsatzera behartzen baitu. Adibide ona da 2020an gertatu den guztia.

Horrela, herritarren, pazienteen elkarten, profesionalen, erakunde sanitario eta soziosanitarioen eta osasun-sistemaren arteko harreman- eta interakzio-eredu berri bat finkatu eta aurreratuko da. Eta, ondorioz, elkartzeko, hitz egiteko eta komunikatzeko bide berriak ezarriko dira, euskal gizartea osatzen duten pertsonen neurria.

Dokumentu honetan zehar, hainbat plan, programa eta estrategia aurreratu dira. Horiek guztiak, Osasun Plan berriarekin batera, Osasun Sailak, Osakidetza eta zerikusia duten beste eragile batzuek datozen urteetan jarraitu beharreko ibilbide-orrak zehaztuko dute, euskal herritarren osasun-premiei erantzun sistematizatua eta integrala emateko eta desberdintasunei erantzuteko.

Plangintza-tresna horiek guztiak elementu hauek izango dituzte barne: erantzun beharreko arazoak edo beharren analisia; helburuak; aurreikusitako jarduerak eta ekintzak; beharrezko baliabideak eta zerbitzuak; eta, jakina, ebaluazioa.

Autogobernuari esker, Euskadik badauka kalitatezko sistema publiko sendoa eta balioetsia. Izan ere, urtez urte, hainbat erakunde osasun-zerbitzu onenak dituzten autonomia-erkidegoen buruan jarri gaituzte termino erlatiboetan. Euskadi da, halaber, biztanleko osasun-gastu gehien duen erkidegoa.

Gure autogobernua sendotzen jarraitzeak Covid pandemia bezalako egoera ezohiko eta zailei aurre egiteko funtsezko tresnak izatea ahalbidetzen du.

**HIZKUNTZA-ESKUBIDEEN
ERRESPETUAN AURRERA EGITEA**

Herritarren hizkuntza-
eskubideak %100ean
bermatzea, idatzizko eta
ahozko harremanetan.

**OSASUN-SISTEMA BERDEA,
INGURUMENAREKIN
KONPROMETITUA**

Izan ere, osasun-kudeaketan
ingurumen-faktorea sartzea ez
da erantzukizun-kontua soilik,
eraginkortasuna eta kalitatea
ere ematen ditu.

Horretarako, aurrera egiten jarraitu behar da, eta Espainiako Gobernuari gogoraraztea Gernikako Estatutua osorik bete behar dela eta, ondorioz, osasun-arloan oraindik transferitu gabe dauden eskuduntzak transferitu behar direla.

Erosotasunez eta segurtasunez aritzeko hautatzen duten hizkuntza ofizialean komunikatzeko aukera ziurtatu behar zaie pazienteei eta erabiltzaileei, zerbitzuaren kalitatea eta berotasuna bermatu aldera. 2018-2022 aldirako hizkuntza-normalizaziorako plana oinarri hartuta, Osasun Sailaren barruan eta Sailaren eta beste erakunde eta entitate pribatu batzuen artean, euskararen ahozko eta idatzizko erabilera ehuneko 15 puntutan handitzeko lan egingo da.

Osakidetzari dagokionez, **euskararen erabilera normalizatzeko hirugarren plana (2021-2026)** jarriko du martxan. Helburua da, bai lehen mailako arretan, **bai ospitale-arretan, harrera, onarpena eta informazioa** pazienteen lehentasunezko hizkuntzan egitea.

Gainera, % 45etik gorako biztanleria euskalduna duten udalerrietan, bertako lehen arretako zentro guztietan, zentro horietara joaten diren pazienteek hautatutako hizkuntza ofizialean egingo da medikuen eta erizainen laguntza-lana.

Halaber, asistentziaren kalitatea hobetzeko, Euskadiko hizkuntza ofizialak ondo ezagutzen ez dituzten eta Osakidetzako interpretazio-zerbitzua behar duten pertsonekin, beren hizkuntzetan komunikatzen lagunduko da. Berdin jokatu da zeinu-mintzairaren bidez komunikatzen diren edo Braillez informazioa behar duten pertsonen kasuan.

Euskadiko osasun-sistemak lagungarri izan behar du euskal gizarte osoak planetaren oreka berreskuratzeko hartu duen konpromisoan. Hala, etengabeko hobekuntza-prozesuan, Osasun Sailaren apustua “berdez” jardutea da, klima-aldaketaren ondorioei aurre egiteko, ingurumenarekin duen konpromiso korporatibotik abiatuta.

Ildo horretan, Osakidetzak plan **bat diseinatu eta abiaraziko du hondakin plastiko eta kutsagarrien erabilera pixkanaka minimizatzeko eta horien kudeaketa hobetzeko**, eta arlo horretan jardunbide egokiak ezartzeko eta hedatzeko. Era berean, **Ihobek bultzatutako erosketa publiko berdearen programari atxikiko zaio**, ingurumen-inpaktua kontuan hartu beharreko aldagai garrantzitsua izan dadin; hori dela eta, lehentasuna emango zaie ingurumenaren ikuspegitik aukerarik onena diren teknologia, produktu eta zerbitzuei.

